



Koruen maila altua eta harrera ona nabarmendu dute aurtengo lehiaketan

TOLOSA ▶ Errusiako Vesna haur abesbatzak eraman du 38. Abesbatza Lehiaketako sari nagusia ▶ 2-3



Vesna, Hamilton eta Tallin Music High School haur abesbatzak, saria jasotzen. N. LIZARTZA



Norteko trenari buruzko liburua, bihartik kalean

TOLOSALDEA ▶ Pello Joxe Aranburu alkizarrak Tolosako udal batzar aretoan aurkeztuko du lana, bihar, 19:30ean ▶ 4-5

IBARRA ▶

Omenaldi beroa jaso dute Otaño eta Mujika aizkolariek

200 lagun bildu ziren emanaldiaren ostean eginiko babarrun jatean ▶ 6



Unai Otaño aizkolaria, iragan igandean, lanean. NEREA LIZARTZA

ANOETA ▶

Gaztetxeko «lapurreta edo miaketa» salatu dute

Ezker abertzaleak bat egin du ▶ 7

38. ABESBATZA LEHIAKETA ▶

Bukatu da, bukatu da

Vesna children's choir talde errusiarrak lortu du aurtengo Abesbatza Lehiaketako sari nagusia; antolatzaileek «koruen maila altua eta ikuslegoaren harrera ona» azpimarratu nahi izan dute

I. TERRADILLOS-E. EZEIZA

Larunbat gaueko dantzaldian irabazleen zerrenda jakitera eman ostean, herenegun gauzatu zen sari banaketa, eta orduan jakin zen ofizialki Vesna children's choir talde errusiarrak lortu duela 38. Abesbatza Lehiaketako Kutxa Sari Nagusia. Ondorioz, talde honek ordezkatu du Tolosako txapelketa hurrengo urtean egingo den Europako Sari Nagusia.

Aurtengo lehiaketa zerbaitek nabarmendu badu, koruen maila altuak eta kalitateak izan da. Izan ere, puntuaketak begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Bestalde, aurreko urtean ez bezala, bi abesbatzek ordezkatu dute Euskal Herria, eta emaitza onak lortu dituzte gainera.

Lehiaketa osatu duten 11 saioetara joandako ikusleei dagokionez, kopurua handia izan da, Tolosako lehiaketa erabat finkaturik dagoen seinale.



Vesna children's choir abesbatzako kideak sari banaketaren unean, garaikurra jasotzen. NEREA LIZARTZA

ANA ARRETXE ▶ TEE-KO LEHENDAKARIA

«Kalitate handiko abesbatzak izan dira aurtengo lehiaketan»

Abesbatza Lehiaketaren azken egunaren biharamunean Ana Arretxe Tolosako Ekinbide Etxeko (TEE-CIT) lehendakariarekin izan gara aurtengoa, orohar, nola joan den jakin asmoz.

Zer moduzko balorazioa egi-zen duzue?

Maila izugarria izan da. Ahots nahasietan, esaterako, puntuaziorik bajuena zuen taldeak 80 puntu baino gehiago batu zituen, eta hori, kontuan hartuta zilarrezko saria jasotzeko 80 puntu behar direla, ikusgarria da. Gainera, abesbatza batetik

bestera oso alde gutxi izan da, beraz, orohar kalitatea izan da nagusi.

Bi euskal taldek hartu dute parte aurtengoa, eta sariak ere jaso dituzte. Gustura geratuko ziren, ezta?

Bai Oñatikoei, bai eta Gasteizkoek ere, oso lan ona egin dute, eta emaitza onak jaso dituzte. Vocaliakoak izan dira bietatik sari gehien jaso dituztenak, lehen sari bat eta bigarren bat, hain zuzen. Bi taldeetako zuzendariekin hitz egin dut eta oso guztura egon direla, eta oso pozik joan dira Tolosatik.

Gainerako abesbatzak ere gustura egoin al dira?

Bai, orohar, pozik azaldu dira, eta herriak oso harrera ona egin diela azpimarratu dute. Tolosan egun hauetan egon den giroa ere nabarmendu dute.

Zer moduzko izan da entzuleen harrera?

Oso ona. Aurrekoetan baino jende gehiago izan da kontzertuetan, eta hori guztira 11 saio izan direla.

Mikrokosmos taldeak penalizazioa jaso zuen.

Pena handiarekin, baina jarri beharra izan genien penalizazioa

zioa eskenatokitik atera baitziren partaideak, eta horregatik lehen saria galdu zuten. Oso zorrotzak izan bagina lehiaketatik at utziko genituen, baina gehiegi iruditu zitzaigun abesti batean hori egiteagatik.

Leidor probatuta, akustikaren inguruan zer esan behar daiteke?

Abesteko hobetu egin dela esan dute abesbatzako kideek, baina entzuteko oso gogorra egiten da oraindik. Dena den hobetzeko aukera dago, beraz, azkar hobetzea eta hurrengo urterako prest egotea da orain gure helburua.

Jende ugari, askok boluntario moduan egon zarete lanean egun hauetan.

Boluntario guztiak, eskenatokia laguntzen aritu direnak, itzultzaileak, ikastolako neska-mutilak, Tolosako elkarteak, dendariak... eskertu behar ditugu, baita herritarren harrera ere. ◀

SARIAK ▶

Denera 26 talde lehiatu dira aurtengo abesbatza lehiaketan. Hauetatik, Errusiako hurren abesbatzak lortu du hurrengo urtean egingo den Europako Sari Nagusirako txartela.

KUTXA SARI NAGUSIA

▶ Vesna children's choir (Errusia).

HAUR ABESBATZAK

1. Vesna children's choir (Errusia).
2. Hamilton children's choir (Canada).
3. Children's choir of tallin music high school (Estonia).

AHOTS BERDINAK**FOLKLOREA**

1. Hutsa.
2. Exaequo.
▶ Coro academico femenino de Nikolaev (Ukraina).
▶ Vocalia taldea (Euskal Herria).
3. Vocalis (Norvegia).

POLIFONIA

1. Vocalia taldea (Euskal Herria).
2. Coro academico femenino de Nikolaev (Ukraina).
3. Vocalis (Norvegia).

AHOTS NAHASIAK**FOLKLOREA**

1. Coralia (Puerto Rico).
2. El leon de oro (Asturias, Espainia).
3. Exaequo.
▶ Cardinal singers (Ameriketako Estatu Batuak).
- ▶ Mikrokosmos (Frantzia).

POLIFONIA

1. Ateneo chamber singers (Filipinak).
2. Mikrokosmos (Frantzia).
3. Voces cantabiles (Erresuma Batua).

AHOTS TALDEAK**PROFANOA**

1. Voces8 (Erresuma Batua).
2. Anima vocal ensemble (Ameriketako Estatu Batuak).
3. Cardinal singers (Ameriketako Estatu Batuak).

SACRA

1. Voces8 (Erresuma Batua).
2. Ensemble vocal Peñalosa (Suitza).
3. Cardinal singers (Ameriketako Estatu Batuak).

iragarki laburrak ▶**LANA**

Harreragileak-Administrari laguntzaileak behar dira Erakunde Publikoetan.
943 31 37 82.

Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak. Lanaldi jarraitua egoitzetan, ospitaleetan, jangeletan. 943 31 37 82.

iragarki laburrak ▶**SALGAJ**

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995ekoa. 153.000 km. 18ko llantak eta sabaia. Egoera oso onean. 14.000 euro.
Telefonoa: 943 65 41 43.

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da.

Interesatuak deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira.

LANA

Ileapaintzaile. Honekin ciber ileapaindegia laguntzaile eta ofizialak behar ditu. Interesatuak de 943 67 22 44 edo 635 736 375.

NC Nekane Caballero
Lda Col 3429

■ Aholkularitza juridikoa: zibil, penal eta administratiboa
■ Higiezin zerbiztuak

Andia kalea, 1 • 1C • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 82 82

IRITZIA ▶ MIGEL ZEBERIO
(KORU ETA ORKESTRA ZUZENDARIA)

Epaiak eta merituak



ganderekin, 38. Abesbatza Lehiaketak agur esan zuen. Gazi-gezaren eguna berau. Sorpresa gutxi neri dagokidanean behintzat. Deigarria, baina horrenbesteren artean gerta daitekeena, Mikrokosmos koru frantziarraren hanka-sartzea eta horren kariatara Sari Nagusienetatik pixka bat aldentzea jasotako isuna dela eta. Obretako bat kantatzerakoan, koruko zenbait kidek eskenategia utzi zuten eta horrela araudiak agintzen duen baino kantari kopuru txikiagoaz aritu izanagatik pare bat puntu kendu zizkionten. Filipinetako Ateneoren mesedetan gertatu zen hau, eta zegokien bigarren postutik garaile izaterako aurrerapausoa eman baitzuten. Beraien polifonia ataleko azken saioak, present ditudan zertzeladak utzi zizkidan. Bost obren bidez, musika garai garrantzitsuenen ikuspegi trebea erakutsi zuten. Yagueren *El Amor y la Locura* behartuan tinko, betidantik abestu izan balute bezala aritu ziren. Moteverdiren *Io mi son Giovionetta*-ko esaldi fin eta jostalarrietan barroko hasierako melisma bizkor eta arinak era harriarrian konpondu zituzten. Schumann-en *Die Orange und Myrte* musika erromantikoan espezializatua den edozein talde germaniarrek ez lioke egiazkortasun handiagorik eskainiko.

Leon de oro-ren jardunak ikuspuntu eta analisi zenbaitetara garamatza. Euskal Abesbatzen Federazioak Lehiaketa honekin batera, orain dela hogeitau bost gehiagotik eraikitako zuzendaritza ikastaroak, Espainia osora zabaltzen ari dira hazia, eta hau, askotan oparagoa ernaltzen eta loratzen hasia da gure mugetatik at... Aspaldiko urteetan espainiar koru batek sekula lortu duen emaitzarik garaienaren jabea agur eta ohore. Bi egun desberdinetan kantatu duen talde bakarra izan da berau, logistika aldeetik konplikatu izan daitekeena, kalitatea bermatzeko eta nerbioak eta sena menperatzeko mesedegarri izan zaialakoan nago.

Orokorrean, ahots nahasietan, ahots taldeetan zein haurren sailtan aritu diren taldeek lorturiko puntu kopurua oso altua izan da. Askoren eskura izan da ehuneko 90 kopuruaren ingurumaria. Ahots berdinen mailak aldiz alde nabarmena izan du, horren erakusle da lehen sari bat banatu gabe gelditu izana. Gauzak horrela, bi ordezkari euskaldunen kurikulumera era oso diferentean aberastu da. Bata zein bestearen lana eta meritu itzelak dira, horrelakoetan sekula saiatu ez denarentzat uler-zailak; Bata, Vokalia lehen eta bigarren sariak besapean dituela atera da, Ofiarrak aldiz egindako lan onaren eta hobereenen artean lehiatu izanaren ondoreaz. Behar izaten den lekuetan, meritu hauek onar bezaizkietel!



Gasteizko Vocalia abesbatza igandeko emanaldian. N. LIZARTZA

ARETO FUTBOLA ▶

Puntu garrantzitsua eskuratu du Laskorainek

3-3ko emaitzarekin berdindu zuen

larunbatean Altamiran, Bar Txutxiren aurka

ERREDAKZIOA

Orokorrean berdinketak inor ez badu asebetetzen ere, lehenengo larunbatean horitxoek Altamira Bar Txutxiren aurka Bilbon eskuratutako puntuak balio moral handia izan du taldearentzat. Aurreko jardunaldian Tolosako kiroldegian gertatu legez, Egizabalen mutilak markagailuan atzetik joan ziren partidaren zati handi batean, baina jokaldia aurrera joan ahala, jarrera erabat aldatu zuten Laskorainek, eta galduta zirudien norgehiagoka batetik etekina ateratzea lortu zuten tolosarrek.

Lehen zatia oso orekatua izan zen. Bi taldeetako inork ez zuen gehiegi arriskatzeko asmorik. Tolosarrak izan ziren

markagailura partiduko lehenengo gola sartu zutenak. Murgi mikolasak ederki amaitutako jokaldi nahasi baten ondoren. Ez zuen, ordea, gehiegi iraun tolosarren pozak, aurkariak berdinketa berrezarri baitzuten. Banako emaitzarekin joan ziren atsedendiara bi taldeak.

Minutu gutxi falta zirenean norgehiagoka amaitzeko eta emaitza 3-1 zenean, Barriolari egindako penalti bat Saldias kapitainak sareratu zuen lehenengo. Azkenik partidua amaitzeko minutu bat baino gutxiago falta zenean Barriolak sartu zuen berdinketako gola Telletxearen asistentzi bikoinekin bat bi denboratan sareratu. Bi berdinketen ondoren, hurrengo norgehiagoka etxean jokatu dute.

GIZARTEA ▶

Gaur, Ramon Alustizaren aldeko meza

Tolosako Santa Maria kapekako bertako partaide diren gutzietan deia luzatzen diete. Gaur arratsaldeko zazpietan Santa Maria elizan egingo diren elizkizunetan parte hartzeko eskatuaz. Gaurko elizkizunearan Ramon Alustiza Iñurritegi zendua gogoratuko dute.

GIZARTEA ▶

Tren zerbitzu berriarekin desadostasunean

Herritar talde batek bihar Kultur Etxean, 20:00etan egingo den bilerara joateko deia luzatu du. Izan ere, Renfe zuzeneko trenaren zenbait geldialdi kendu ditu, horien artean, Tolosako apeaderoa, honek erabiltzaile askorengan eragina izan duelarik. Hala, irailaren egindako ordutegi aldaketa dela eta, zerbitzuetako batzuk kendu dituzte. Hori dela eta, erabiltzaile talde batek azalpenak emateko eta zerbitzu hori berrezartzeko eskatzen du.

KULTURA ▶

Bertan behera geratu zen larunbateko saioa

Igarondo merkatarien elkarrekin joan den larunbaterako Isidro Larrañaga Akordeoi orkestraren kontzertua antolatua izan zen. Baina zenbait arazo zirela eta, bertan behera geratu zen emanaldia. Horregatik, elkarrekin barkamena eskatu nahi du, eta jakinarazi, aurrerago egingo dela.

HIRIGINTZA ▶

Soldadu kalea itxita egongo da goizean zehar

Kata batzuk egin behar dituzte Euskal Herri plazako 1-A eraikinean, hau da, garai bateko epaitegian, birgaitzen hasi baino lehen. Hori dela eta, Soldadu kalea itxita egongo da ibilgailuentzat. 7 zenbakiaren parean, gaur, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Lan hauen ondorioz, eta eragozpenak direla eta, Tolosako Monteskue auzoko bizilagunek, ibilgailuz joan behar badute hara, San Esteban auzoko bidea erabili beharko dute denboraldi horretan.

SASKIBALOA ▶

Asteburu beltza izan da TAKEko taldeentzat

ERREDAKZIOA

Klubeko gazteenek, Tolosa B-ko infantilek, soilik lortu zuten garaipena asteburuan. Gainerako taldeek porrot «mingarriak» jasan zituzten.

Tolosa Aralar-eko seniorek Bilbora egin zuten bigarren larunbat arratsaldean. Bi baja garrantzitsurekin ez zuten garaipena lortu. 82-71ko emaitzarekin amaitu zen partida, hogeitau bost baino gehiagoko desabantaila batekin egon baziren ere partiduko zenbait unetan. Hala ere, sailkapeneko goiko postuetan jarraitzen dute. Datorren astean etxean jokatuko dute beste talde bizkaitar baten aurka, Bidegintza Cespa Conten. Norghegiakoa larunbat arratsaldeko 16:00etan izango da Usabal kiroldegian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzio Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarain autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egotitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA >

Norteko trenaren iraultza

Trenbidearen eraikuntzak Gipuzkoa eraldatu zuen XIX. mendean Tolosa bigarren mailan utziz; bihar aurkeztuko dute bere historia jaso duen liburua



Trenbidea Donostian 1864ko abuztuaren 15ean inauguratu zuten, garai hartako murrak honetan ikus daitezkeen. «13»

JOXEKI SAIZAR

Duela 150 urte inguru (1858-64) Tolosaldeko eta Gipuzkoako itzura, komunikazioa eta ekonomia erabat aldatuko zuen lana burutu zuten Madri-Paris trenbidea. Norteko trens pures eskuakidetik pasatzeak etabaidia eta lan ugari eta diru bilketa handiak egin behar izan ziren. Zeregin horiek guztiak bere fruitua eman zuten ondoren. Gaur egun pentsaeraz litzateke garrantzidote hori gabe bizitzea. **Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketak eta ondorioak** I. Beasain-Irun liburua kaleratu berri dute Pello Jose Aranburuk eta Luis Mari Intzok eta bihar aurkeztuko dute Tolosaldeko udalaren.

Duela bost bat urte hasi zen liburuhonekin Pello Jose Aranburu alkazara, Oñatiako artzibizprobitzailean Alkazar buruko paper batzuen bila ari zela trenbideari buruzko fakturak eta bertatik topatu zituenen. «Gaiari buruz ibertzen hasi eta berehala konturatu nintzen hasieran uste baino lan mardulago eta garrantzitsuagoaren aurrean nengoela. XIX. mendeoko eraikuntza garrantzitsuena, industriaizazioa eta demogra-

fian iraultza ekarriko zuena», dio Aranburuk. Bera ibili da Alcalá de Henares, Oñati eta Tolosaldeko artzibizprobitzailearen Luis Mari Intza ofiziarra —Tolosan bizi da— izan du laguntzaile. 1844tik 1864a izan zen Tolosa Gipuzkoako hiriburu. Garai horretan garrantzia handia zuen probintzian 8.000 biztanle besterik ez izan arren. Gipuzkoaren erdialdean zegoen kokatua eta diligentzia garrantzitsuena —Madri-Paris eta Bilboo-Zaragoa— bertatik pasatzen ziren. Donostia ibilbide nagusi horietatik aparte gelditzen zen. Asteigarragatik josten baitziren Madri-Paris bidea. «Trenbideak aldatu zuen hori, Tolosaren galerako. Bigarren mailan gelditu zene, dio alkazarak. Oso inbertsio txikia egin arren, berrogei urtetan Beasain eta Donostiaiko populazioa bikoiztu eta hirukoitzi egin zen —bakoitzak 14.000 biztanle zituen aurretik— Tolosa bertan, ez zen baina handitu. Donostiak harresiak bota eta lehendik ez zuen komunikabide, hazkuntza eta garrantzia eskuratu zituen. Gainera, Lasakoain bailararik aurrerako zabalakuntza moztu egin zuen trenbideak.

Zabala eta Lizartaburu

Norteko trenaren eraikuntzan bitolosaldeko protagonismo berezia izan zuten Ladislao Zabala Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Manuel Lizartaburu abokatu eta politikariak —gaur egun Kultur Enea dena berea zen, Diputazioari alokatu zion egoitza izateko— liberak biak. Zabalaik «bete-bete» bultzatu omen zuen proiektua, horren aldeko bandoa zabalduz. Bala horietan behera, Ferrnín Lassala Mandasako dukeak, Luis Mariategi eta Pablo Gorosabelek —lehenak donostiarra, besteak biak tolosarrak— ere asko bultzatu zuten. Mariategi negoziazio guztietan hartu zuen parte. Gorosabelek Tolosaldeko aliatu eta Espainiako konkordietan ari zen enpresa atzerritarra zen, frantsesa. Aurretik nafarrak esan zuen trenbidea bere herrialdeetik eginen, muga eta Pirinioak Auldudeatik zeharkatuz, baina azkenean Gipuzkoako sukera otera zen aurrera. Behin Gipuzkoatik pasatuko zela erabaki zutenen, nafarrek Tolosaldeki hurrean aldera bidet-

ritu nahi zuten, baina Gorosabelek eta Lizartaburu Goleerri eta Altsasutik barrena egitearen aldekoak ziren eta hori erabaki zen. Donostian ere izan ziren borroka batzuk ibilbidearen inguruan. «Batzuk portuaraino eramane nahi zuten tren merkantziarako aprobetxatzeko, Antiguatik sartuz. Konta hondartzara hustu eta bertan tren geltokia egiteko proiektua eta dena egin zuten. Ejerzitxoak bota zuen hankak gora sukera horra, dio egileak. Azkenean Prantzia eta Espainiako gobernuak hartu zuten Madri-Paris trenbidearen ibilbidearen inguruko erabakia. Enpresa atzerritarra izan arren, hemengo udal eta partikular askok jarri zuten dirua lan berrirako. Udalen artean alde handiak daude jarri zuten diru kopuruetan eta beti ez zen trenbidea pasa behar zuten herriaren aldekoa, ondoko koadron ikus daitezkeen. «Nabarmena da Donostiak eta Tolosalde egin zuten trenaren aldeko apustua. Beasainek berriaz, Alkizak. Berastegik eta Irurak baino diru gutxiago eman zuten. azkenean di Aranburuk. Harrigarria izan daitekeen beste datu bat da tolosaldeko eta trenbideetik urrutit

DIRU BILKETA >

Udal eta herrialde batzuetatik emandakoak, errealetan.

Anoeta,	4.000.
Alkiza,	36.000.
Beasain,	27.000.
Berastegi,	108.000.
Bergara,	917.000.
Donostia,	12.000.000.
Hernani,	634.000.
Ibarra,	14.000.
Irun,	358.000.
Irura,	62.000.
Ormaiztegui,	30.000.
Oiartzun,	426.000.
Oñati,	798.000.
Tolosa,	2.172.000.
Pasaja,	122.000.
Usurbil,	54.000.
Zegama,	76.000.
Zestoa,	362.000.
Zumaia,	244.000.
Zumarraga,	132.000.

Gipuzkoan orotara, 35.056.000.
Kuba, 5.258.000.
Madri, 985.000.
Peru, 1.000.000.

PELLO J. ARANBURU EGLEA

«kertzten hasi eta ueste baino lan mardulago eta garrantzitsuagoaren aurrean nengoela konturatu nintzen»

«Donostia ibilbide nagusietatik aparte gelditzen zuten, trenak aldatu zuten hori Tolosaren galerako»

dauden herri batzuk ere dirua jarri izana. Azzerritik ere, gehienbat euskaldunek jarritako, irritsi zen dirua. Madri, Kuba, Peru... Akzionisten artean 109 tolosar ageri dira, kopuru desberdinekin 2.172.000 errealetara iritsi ziren. Luis Mariategi —500.000 erreale—, Nemésio Uranga, Ladislao Zabala eta Juan G. Ezezarreta —bakoitzak 100.000— eta Manuel Lizartaburu, Udala, Jose Maria Zabala eta Federico Zabala kondea —bakoitzak 80.000— nabarmentzen dira horien artean.

Obra handiak egin behar izan zituzten sei urte horietan Tolosaldean trenbidearen eraikuntzarako, zubi eta tunel batzuk tartean. San Esteban auzoko geltokia izan zen garrantzitsuena. Alliri, Garaialde, Beasain, Oñati eta Zuloaga txiki baserriak eta bi aterpe

bota zituzten. Tolosa bertan nondik pasatu erabakitzeak ere etabaidia izan ziren. Ora ibalaren ibilbideak ere mugitu behar izan zuten Araxes elkarren zailen puntuan —Harririkasta du izena lekua—, trenbideari lekua irekitzeko, errepede nagusia ere bertatik pasatzen baitzen. Karrantari esateko horrek aldatu zituzten. Iratzen horretan zegoen harrobia desageratu egin zen. Lur eta soro ugari desjabetu zituzten. Eratkitzen ari zirela galera handiak eragin zituen lurrikara bat izan omen zen.



Pello Jose Aranburu (ezkerrean) eta Luis Mari Intza libururen egileak Azpeitiko tren museoan. «13»

Egunean behin; karri bat

Lehen tranbia 1866ko sarjoko netan iritsi zen Tolosara. Lehenengo urteetan egunean behin pasatzen zen norabide bakoitzan. Hala ere, trenbidea edozein tokitan gurutzatzea debekatuta zegoen, nahiz eta base-erriak askok soroak eta baratxak izan bi aldeetan. Polizia aritzen zen zaintzen eta isurak jartzen. Auzo txikia, Monteko eta Urkizura zihorren bide asko moztu egin ziren, kezu asko izan zen eta asko kostatu zen berrekituraztea. Karri bakarra zen 1900 arte. Trenek geltoki nagusietan itaron behar izaten zuten beste norabidean zatorren trenena pasa arte. Pasonbelak, zubiak eta guarda etxeak geroago egin zituzten. Obrenen inaugurazio beldinapan eta hankatearen grafikoak jasotzen dituzte liburua berriak. Santa Krux apiztak II. Karlistadaren —bi Karlistadaren artean erakile trenbidea— tren Beasaingo geltokian tren nola deskarriatu zuten ere kontatzen du.

Tolosako protagonismo berezia izan zuen, Gipuzkoako zatiko notario lan gehienak bertan egin zirelako. Tolosa buruzko informazio asko jaso dute egileak, baina dena ezin izan dute sartu, beste liburua baterako utzi dute. Babelenkerik aurkitzen badute III. Karlistadaren ondoren (1873-75) Tolosaldeko eta Ordiziako auzokitarako zerbitzu berriak jarri zituzten. Hala ere, lehen urteetan porrotu izan zen ekonomikoki. Industria XIX. mendean bukatzeran hasi ziren garrantzia hartzen, eta haren batera tren, Tolosaldean zuden paper fabrikak —lehenak hemen inguruan erakili zituzten— garraio lanetarako hasi ziren erabiltzen.

Bihar aurkeztuko den lan mardul honen egileek liburua argitaratzeko irizar kooperatibak. Eusko Trenek eta Pasaiako garraio kooperatibak eman dieten laguntza eskertu nahi dute. Liburuarekin batera CD bat izango du plano eta beste-lakekin. Bigarren zatia, Oñate-Beasain, laster izango da kaleratua.

EKITALDIA >

Gaia. Norteko trenbidearen eraikuntza, ebaluaketak eta ondorioak I. Beasain-Irun liburuen aurkezpena. **Eguna.** Bihar, asteazkena, azaroak 8. **Oraia.** 19.30. **Tokia.** Udal batzar aretoa, Herria. Tolosa. **Ezargarririk.** Egileak: Pello Jose Aranburu eta Luis Mari Intza. Oñatiak: 610. Argazkiak: 42. CDa planoekin. Prezioak: 10 euro.



IBARRA ▶ GIZARTEA

Omenaldi beroa jaso dute Otañok eta Mujikak Ibarrran

Aizkolarien omenaldiaren ondoren, Hauspoak urtero antolatzen duen babarrun jatea egin zuten, 200 lagun inguru bildu zirelarik mahai inguruan

MADDI SOROA

Unai Otaño eta Jexux Mari Mujika aizkolariek omenaldi beroa jaso zuten pasa den igandean Ibarrrako San Bartolome plazan. Omenaldi ekitaldia, Hauspoak urtero antolatzen duen babarrun jatearen barnean burutu zen.

Aurtengo babarrun jatea jendetsua izan zen, 200 lagun inguru bildu baitziren mahaian inguruan, Deportiba eta Xepla elkarteetako lau sukaldariek prestaturiko babarrunak dastatzeko. Tripa asetu ondoren, bazkarian bertan banaturiko kanta liburuxkak eskuan harturik, kantari aritu ziren bertaturikoak.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, «eguraldi ona lagun izan genuen eta oso jaialdi polita izan zen, jende asko bertaratu zen gainera». Bazkariaren inguruan, «kalitate handiko babarrunak prestatu zituzten eta oso goxoa zegoen guztia», adierazi dute antolatzaileek.

Omenaldia azikolariei

Unai Otaño eta Jexux Mari Mujika aizkolariek ibartarrei egindako omenaldiak 12:30ean izan zuten hasiera, Juan Joxe Lopez eta Iñaki Agirre nafarren aurka indarrak neurtu zituztelarik.

Aizkora saioan, Mujika eta Lopez hasi ziren lanean, erlojuaren aurka zeinek enborra lehenago moztu. Ondoren, Otaño eta Mindegia enborra kolpe gutxiagotan zeinek moztu aritu ziren. Hirugarren saioan txan-

da librean aritu ziren ibartar eta nafarrak egurra zutika eta etzanda moztuz. Azkenik, 60 ontzako sei enbor moztu zituzten guztiek txanda librean. Aipatu, ibartarrak nagusi izan zirela. Erakustaldiarekin amaitzeko, aizkora hasi berria den Iñaki Agirre ibartar gazteak hamar minutuko saioa egin zuten.

Omenaldi ekitaldian, Ibarrrako dantzari batek agurra dantzatu zien Unai Otaño eta Jexux Mari Mujikari. Jarraian, oroigarri bana banatu zieten.

Omenaldiaren bitartez, Unai Otaño eta Jexux Mari Mujikak urte osoan zehar aizkora egindako lana txalotu nahi izan du Hauspoa elkarteak.

UNAI OTAÑO ▶ AIZKOLARIA

«Herrian irabazi egin behar izaten da beti, badezpada»

Pasa den igandean jasotako omenaldiaren inguruan mintzatu da Unai Otaño TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREKIN.

Omenaldia izatea ez da eguneroko gauza.

Oso polita izan zen. Jende asko joan zen ikustera, gazte nahiz heldu, eta lagun asko ere izan zen bertan. Agurra eta oroigarria jasotzea polita izan zen.

Erakustaldia, baina irabazi, badaezpada.

Lehen saioa galdu egin genuen baina gainontzekoetan garaile



Otaño eta Mujika, dantzariaren agurra jasotzen. NEREA LIZARITZA



INIGO TERRADILLOS

atera ginen. Norberari garai-pena etxeraztea gustatzen zaio. Badakizu, herrian irabazi egin behar izaten da beti, badaezpada [kar kar].

Aizkora jarraituko duzu, orduan?

Bai, ekonomikoki Bigarren Mailan aritzen nintzenez baino zailtasun handiagoak izango ditut, bikoitza hain zuzen ere. Gainera, ez dugu diru laguntzarik jasotzen. Baina, tira, saituko naiz denboraldi ona egiten. ◀

BERROBI ▶

Frontenis Txapelketan izena emateko azken eguna

Parte-hartzaileen artean neska gehiago izatea nahi dute antolatzaileek

M. SOROA

XV. urtea beteko da aurtur Berrobin Frontenis txapelketa antolatzen dena. Izena eman nahi dutenek, ordea, bihar izango dute horretarako azken eguna. Interesatuek, Berrobiko udaletxean, Iriarte jatetxean eta Iturritza dendan edota Tolosako Aralar Kirolak-en egin dezakete, lagun bakoitzeko 5 euro ordainduz.

Txapelketak bi modalitate izango ditu, banaka nahiz binaka. Aipatu, neskek binaka aritzea besterik ez dutela izango eta bikote mistoak ere onartzen dituztela. Partida bakoitza 30 puntutara jokatuko dute banaka nahiz binakako modalitateetan. Gogoratu, ordea, binakako kasuan, gehienez ere 45 minutu iraun dezakeela partidak. Era horretan, ordura arte punturik gehien lortu duen bikotea irtengo litzateke garaile.

Txapelketa azaroaren 18an hasi eta abenduaren 7an amaituko da, orduantxe jokatuko delarik finala. Partida guztiak asteburuetan izango dira. Parte-hartzaile bakoitzak noiz eta noren aurka jokatuko duen jakitiko zozketa egingo da etzi Berrobiko etxolan, 21:00etan.

Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, aurtengo txapelketako helburuen artean neska parte-hartzaileen kopurua handitzea dago.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behean
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@inmoenio.com
www.inmoenio.com

Anoeta. 3 logela, sukalde, egongela eta bainugela. Dena kanpoaldera. Bizitzen jartzeko moduan.

Anoeta. Duela gutxi erakuntzan duplexa salgai. Garaje itxia aukeran. Oso egoera ona.

Amezketeta, Berastegi, Gabiria, Hernialde, Ibarra. Hainbat etxe bifamiliar, eta abixi, erakuntza berrikoak eta bigarren eskukoak.

Berrobi. Estilo rustikoan (aldizkarietan bezala!). 2 logela, egongela, sukalde eta bainugela.

Berrobi. 3 logela, egongela,

sukalde, bainugela eta bi trasteleku. Igogailua jartzeko proiektuarekin.

Ibarra. San Inazio. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan.

Berokuntzarekin.

Ibarra. Julian Gayarre. 2 logela, sukalde, sala eta bainugela. Berokuntzarekin. Ezin hobeto. 239.805 euro.

Irura. Etxezarreta, 3 logela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Garajea aukeran.

Leaburu bidean. bi solairuetan banaturiko 600 m2ko pabiloia

alokairuan, 2.500 m2ko zelaiarekin.

Tolosa. Erakuntza berriko hainbat ekebizitza salgai. 2, 3 eta 4 logela aukeran. Garajeekin.

Tolosa. Beotibar. 36 m2. Altua, 150.000 euro.

Tolosa. Alde Zaharrean, 2 logela, sukalde, egongela, eta bainugela. Hainbat berokuntza. 168.285 euro.

Tolosa. Berazubi. Berritzeko aukera antizak. Igogailu proiektua onartuta.

Tolosa. Siervas de Jesus. 3 logela, sukalde, egongela, eta 2 bainugela.

Tolosa. Zumalakarregi. 92m2. 3 logela, 2 bainugela eta garajearekin. Guztiz berrituta eta estreinatzeko.

Tolosa. La Estrella. Etxebizitza salgai oso egoera onean. Igogailu eta garajearekin.

Tolosa. Isaac Lopez Mendizabal, 4 logela. Igogailua eta garajearekin. Egoera ona.

Villabona. Kale Berria. Erakuntza berria. Pisu altua. 100 m2. Garaje ibixiarekin.

Legorreta. Trasteleku salmantan. Bizikleta edo motorrak gordetzeko egokia.

ANOETA ▶ GAZTERIA

Gaztetxeko «lapurreta edo miaketa» salatu dute gazteek

Salaketa igandeko agerraldian egin zuten, eta Anoetako ezker abertzaleak babesa eta elkartasuna eskaini diete



Igandean Anoetako Gazte Asanbladak Anoetako plazan egindako agerraldiko une bat. HITZA

ERREDAKZIOA

Igande eguerdian Anoetako plazan prentsaurrekoa egin zuten Anoetako Gazte Asanbladakoek. Ostiraletik larunbaterako gauean Gaztetxean izandako ustezko lapurreta «gogor» salatu zuten bertan, bai Gazte Asanbladak eta baita herriko musika taldeek ere. Baina, hala ere, «oztopo guztien gainetik haien bidetik jarraituko dugu».

Prentsaurrekoan «lapurreta edo miaketa» izanaren zalantza erakutsi zuten gazteek, eta larunbatekoa gogoratu zuten: «10:30ak aldera lehen anoetarrek Gaztetxera iritsi eta gauzak beti bezala ez zeudela ohartu ziren». Izan ere, «Gaztetxeko eta herriko musika taldeen lokaletako sarraillak puskatuta zeuden». Gauza materialik ez dela falta gogoratu zuten. Al-

diz, zirrikitu guztiak miatuta aurkitu ditugu —kitarren fundak, sofa azpiak, bonbo barruak, kajoiak...—.

Honen aurrean, «hainbat galdera etortzen zaizkigu burura, ez baita lehen aldia horrelako ekintza baten aurrean aurkitzen garena». Horien artean, «zertarako hartu horrelako lana ezer ez eramateko? Zergatik sei ate txikitu eta alarima zuen bakarra utzi ukitu gabe? Zeren bila etorri dira? Nor? Zer izan da, lapurreta ala miaketa?».

Honen harira, aurrerago ekitaldi bereziren bat egiteko asmoa erakutsi zuten.

Ezker abertzalearen babesa

Anoetako Gaztetxeak jasan duen «erasoaren» aurrean, Anoetako ezker abertzaleak bere elkartasuna eta babesa

eskaini die Anoetako Gazte Asanbladari eta bertako musikari taldeei.

Une honetan, eskerrak eman nahi dizkie «urte hauetan guztietan herriarentzako egindako lan guztiagatik, adin ezberdinetako gazteen arteko lotura izatea lortu dutelako eta ez hain gazteekin elkarlana landu dutelako».

«Eraso honekin» norbaitek Anoetako Gazte Asanbladaren «dokarri hori eten nahi bazuen, ziur gaude ez duela lortuko». Ezker abertzaleak bere laguntza osoa eskeini die eta «aurretik jarraituzera» animatzen die, «autogestioan oinarriturik, gazteen behar eta ametsak egia bihurtzen diharduten gazte guztiak».

Anoetako ezker abertzaleak anoetar guztiak animatzen ditu «antolatzen diren protesta ekimenetan parte hartuzera».

ALEGIA ▶

Perretxikoetaz, umeentzako Kultur Etxean

Eti 18:00etan umeentzako hitzaldia dago Azaro Kulturaren baitan: *gure basoko perretxikoak* izango da gaia. Ibon Azpilikuetaekin egindako igandeko ibilaldiari jarraipen moduko bat izango da. Bestalde, hilaren 14ean Juanito Oiarzabal zen Alegiara joatekoa, baina espedizio batean dagoenez bere ordez Antxon Iturriza joango da proiektoria, 19:30ean.

ALBIZTUR ▶

Artikulazioen higaduraz, gaurkoan

Gaur 17:30ean Albizturko Kultur Etxean hitzaldi bat izango da. Izaskun Arrilagak *Nola eraman artikulazioen higadura* gaiari helduko dio. Helburuak: urteen joanak gure hezurretan uzten dituen aztarnak ezagutu eta jarraitibideak markatzea, funtzionatu ezinezko egoerak, oinazeak baliatzen jakitea, bizi-kalitatea hobetzeko ohitura eta pausuak... Artrosia eta beste hainbat gaixotasun erreumatologikoen gainean eta sintomak arintzeko moduak emango ditu, eta zalantzak galdetzeko aukera izango da.



Artrosia aldaka batean. HITZA

ALEGIA ▶

Txintzarri bazkarirako txartelak salgai

Alegiko Txintzarri Txiki eta Txintzarri Eguna ospatuko dute hilaren 19an. Egun horretan Azaro Kulturaren baitan dagoen kontzertua emateaz gain, bazkaria egingo dute Alegiko Txintzarri elkarteak. Hori dela eta, bazkari txartelak salgai jarri dituzte ohiko lekuetan eta epea hilaren 12an amaitzen da. Nahi duena joan daiteke bazkarira.

AMEZKETA ▶

Idorrieriaz gaur, Jubilatuen elkarteak

Gaur 18:00etan Xabier Susperregik zuzendutako hitzaldia izango da Amezketako jubilatuen elkarteak. Gaia *Idorrieria, nola aurea hartu eta tratatu* izango da. Ekintza honekin sare publikoko Osasun Zentroek dituzten eginkizun eta baliabideak ezagutzera eman nahi dituzte. Antolatzailerak Aulas Kutxa da, eta kolaboratzailea, aldiz Nazaret Zentroa.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldekohitza.nfo

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Albiztur. Kultur Etxean 17:30etik aurrera, Izaskun Arrillagarekin hitzaldia izango da, artikulazioen higaduraz ariko direlarik. Helburuak: hezurak ezagutu eta jarraibideak markatu, oinazeak, etab, baliatzen jakitea, bizi-kalitatea hobetu ahal izateko.

Tolosa. Tolosako XX. Babarrun Lehiaketa dela eta, lehiaketaren ostetan izango den bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko. Interesatuak, Gure Kaiola elkartera, lan egunetan, 19:30etatik 21:00era joan behar dute.

Villabona. Gaztetxean, 19:30etik aurrera Italiako iparraldean AHTren proiektua nola geldiarazi zuten azalduko duen proiektzioa.

JAIK

Amasa. Sanmartinen jaien baitan, 20:30ean, mondeju afaria egingo dute, Uxo-tokian.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Esperientziak*, XX. mendeko memoriaren berreskuratze proiektuko elkarriketen bideoak ikusgai, Aranburu jauregian eta Gipuzkoako Artxibo orokorrean.

Tolosa. *Destambul kolorek, soinuk, zaporek* jardunaldien baitan, *Topaketa* Leidorren hilaren 12a bitarte, eta Frontonen azaroaren 17ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarriketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (erreplikapena).
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Txipli-txapla kantuan

BEDAIO ▶ Ehun lagun inguru bildu ziren Bedaioko elkartean, iragan larunbatean eginiko gaztain-bertso afarian; antolatzaileak «gustura» daude



Gaztain jatea egin aurretik, herritarak prestaketa lanetan gogor aritu ziren. HITZA



Elkartean bildutako bizilagunek adi-adi entzun zioten bertsolarien saioari. HITZA

ERREDAKZIOA

Zer esango dut ba, gutzia primeran atera zen». Gisa honetara azaldu zuen Izaskun Jauregik iragan larunbatean Bedaion jazotakoa. Izan ere, «erabat arrakastatsua» izan zen elkartean eginiko gaztain-bertso afaria. «Urtero gaztain jatea egin ohi dugu eta aurten zerbat berezia egitea bururatu zitzaigun», dio antolatzaileak. Hori dela eta, Amaia Agirre eta Unai Muñoa bertsolariak gonbidatu zituzten urteroko hitzorduari ukitu berria emateko helburuz. Hauek euren lana ederki bete zuten eta ordu eta erdiko bi saio «dibertigarri» eskaini zituzten, bertan bildutakoen gozamenerako.

Adin guztietako jendeak hartu zuen parte afarian eta festa giroa goizaldeko 04:00ak arte luzatu zen. Guztira ehun lagun inguru izan ziren afarian. «Bedaion beti izan da bertsozaletasuna eta hau bultzatzeko ideia ona iruditu zitzaigun; bete bete asmatu dugu». Amaierarako, herritar batek ere bat egin zuen bertsolarietara, trikitilari batek jaia girotzen zuen artean.

Bapo jateko aukera ere izan zuten bedaiotarrek, bakailao tortillak, txerri saiheatsak pata-ekin eta, nola ez, gaztainek osatutako menuarekin.

Datorren urterako ere errepikatzen gogotsu azaldu dira antolatzaileak. Haatik, «zerbat pentsatu beharko dugu, espazio aldetik eskas ibili ginela». Izan ere, antolatzaileek zutik afaldu behar izan zuten, eta haurrak ere beste gela batera eraman zituzten.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Uxue Aizpurua De Paz (Asteasu). Gaur lau urte. Zure familiararen partetik.



URTE ASKOAN
 Manex Tejeria Larrarte (Zuzurkil). Zure lehen urtebetetzean, mnxu handi 1 familia guztiazen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa